

## POBREZIA ENERGETIKOA / POBREZA ENERGÉTICA

URRIAK 4 DE OCTUBRE



**ALBA DEL CAMPO:** Cadizko Trantsizio Energetikoaren Mahaiaaren koordinatzailea. Kazetaria eta trantsizio energetikoko prozesuen arloko aholkularia. Gaur egun *Sí Se Puede* Cádiz talde politikoan dabil lanean, eta bi dokumental egin ditu gaur egungo eredu energetikoari eta alternatibei buruz: *#Oligopoly2. El imperio eléctrico contra todxs* (2013 EuroSolar saria) eta *#OligopolyOFF. Empieza la revolución energética ciudadana* (2015).

**ALBA DEL CAMPO:** Coordinadora de la Mesa de Transición Energética de Cádiz. Periodista y asesora en procesos de transición energética. Trabaja actualmente para el Grupo Político *Sí Se Puede* Cádiz y ha realizado dos documentales sobre el actual modelo energético y las alternativas: *#Oligopoly2. El imperio eléctrico contra todxs* (Premio EuroSolar 2013) y *#OligopolyOFF. Empieza la revolución energética ciudadana* (2015).

**Dinamizatzailea /Dinamizadora:** Oihana Aristondo (UPV/EHU)

### Transición energética y democracia:


Obstáculos, retos y oportunidades: El cambio climático y los terribles impactos sociales y ambientales de nuestro modelo energético nos exhortan a realizar de manera urgente una transición a un modelo renovable y sostenible. A escala global, podemos decir que dicha transición ya ha comenzado, sin embargo, ésta puede profundizar las desigualdades sociales actuales y agravar la crisis ambiental o por el contrario, contribuir a la construcción de sociedades más igualitarias, justas y democráticas. En esta jornada reflexionaremos sobre los obstáculos, retos y oportunidades de una transición energética democrática y compartiremos la experiencia de las mesas de energía de Cádiz.

### Trantsizio energetikoa eta demokrazia:

**oztopoak, erronkak eta aukerak:** Klima aldaketa eta gure eredu energetikoak gizartean eta ingurumenean duen eragin beldurgarria direla eta, premiazkoa da eredu berriztagarri eta jasangarri baterako trantsizio bati ekitea. Esan genezake mundu mailan trantsizio hori hasi dela, baina trantsizio horrek gaur egungo gizarte desberdinkerian sakondu eta ingurumen krisia larriagotu dezake, edo, kontrara, gizarte parekideago, justuago eta demokratikoak eraikitzen lagundu. Jardunaldi honetan, trantsizio energetiko demokratiko batek dituen oztopoez, erronkez eta aukerez hausnartuko dugu eta Cadizko energia mahaien esperientziak partekatuko ditugu.

## EKONOMIA ZIRKULARRA / ECONOMÍA CIRCULAR

URRIAK 18 DE OCTUBRE



**SANTIAGO BARBA:** Ekonomia eta Enpresa Zientzietan lizentziatua da, Deustuko Unibertsitatearen eskutik, eta UPV/EHUren Nazioarteko Ingurumen Zuzenbidea Masterra egindakoa. Gaur egun, *Eko-REC* enpresako zuzendari nagusia da. *Eko-REC* duela gutxi sortutako ekonomia zirkularreko enpresa da, eta 25.000 tona PET botila birziklatzen ditu urtean. Horrez gain, Barbak 25 urte daramatza lanean industria arloko eta oro har honako helburu hauek dituzten enpresetako zuzendaritza karguetan: nazioartera begira lan egitea, jarduerak berrantolatzea eta hala industria arloko nola I+G+b arloko proiektu berriak bilatzea.

**SANTIAGO BARBA:** Licenciado en Ciencias Económicas y Empresariales por la Universidad de Deusto y Master en Derecho Internacional de Medio Ambiente (MIDA) por la UPV/EHU. Director General de *Eko-REC*, empresa de reciente constitución de economía circular que recicla 25.000tn/anales de botella de PET. Lleva 25 años de trabajo en cargos diferentes en dirección de empresas del ámbito focalización al ámbito internacional, reorganización de actividades y búsqueda de nuevos proyectos tanto industriales como en el ámbito de la I+D+i.

**Dinamizatzailea /Dinamizadora:** Cristina Peña (UPV/EHU)

### Ekonomia zirkularra: hondakinetatik baliabide industrialetara:

Hitzaldiaren helburua da Eko-REC enpresak birziklapenaren, eraginkortasun energetikoaren eta, bereziki, Ekonomia Zirkularri buruzko I+G+I arloaren munduan izandako esperientzia azaltzea. Eko-REC da gaikako bilketaren bitartez jasotako PET botilak birziklatzen dituen enpresa bakarra. 23.000 tona hondakin PET lamina (elikagaietarako bilgarria) eta poliester zuntza (automobilgintzarako) bihurtzen ditugu, eta, horretarako, 115 pertsonari ematen diegu lana. Negozio eredu hau bakarra da European.

### Economía circular: del residuo al recurso industrial:

El objetivo de la charla es explicar la experiencia de Eko-REC en el mundo del reciclaje, la eficiencia energética y, sobre todo, en el campo del I+D+i sobre Economía Circular. Eko-REC es la única empresa en Euskadi que recicla botellas de PET procedentes de recogida selectiva. Transformamos 23.000tn de residuo en lámina de PET (envase alimentario) y fibra de poliéster (para automoción), dando trabajo a 115 personas en un modelo de negocio único en Europa.

## INGURUMENA / MEDIO AMBIENTE URRIAK 25 DE OCTUBRE



**MEGHAN SAPP:** *Planet Energy SL* energia berriztagarrien nazioarteko aholkularitza enpresako gerentea. *PANGEA*-ko (Energia berdearen Europar eta Afrikar bazkideak) idazkari ohia Bruselan, *Energiarekin*-eko lehendakariordea eta *Nafarkoop* eta Euskadin eta Nafarroan *GoiEner*, energia berriztagarrien sorrerako kooperatibako, zuzendaritza batzordeko kidea. 15 urte baino gehiago daramatza energia berriztagarrien ekoizpen eta kontsumo iraunkorraren inguruan gobernuak eta enpresak aholkatzen. Azken urte hauetan gehienbat hondakinen kudeaketari eta auto-kontsumorako baliabideen erabilerari buruz izan delarik.

**MEGHAN SAPP:** Gerente de *Planet Energy SL*. Antigua secretaria general de *PANGEA* (Socios Europeos y Africanos para Energía Verde, por sus siglas en inglés) en Bruselas, vice-presidenta de *Energiarekin* y miembro de la junta directiva de *Nafarkoop*, las cooperativas de generación de energía renovable de *GoiEnerg* en el País Vasco y Navarra. Lleva 15 años asesorando gobiernos y empresas sobre la producción y consumo sostenible de energías renovables, los últimos años con un enfoque en gestión de residuos y aprovechamiento de recursos para autoconsumo energético.

**Dinamizatzailea /Dinamizadora:** Mirari Antxustegi (UPV/EHU)

### Landa garapen jasangarria, inguruko energia aprobetxatuz:

Azken mende erdian, hirigintzara bideratutako mugimenduak ia hutsik utzi ditu herriak, eta hiriak, berriz, beteta baina horri eusteko baliabiderik gabe. Herrietan bizi direnek edo bizi kalitatearen bila herrietara itzuli direnek, gizartean, ingurumenean eta ekonomian jasangarritasuna lortzeko, ezinbestekoa izango dute baliabideak ondo kudeatzea, eta hor funtsezkoa da energia. Baina nola lor daiteke? Meghan Sapp, energia berriztagarrien nazioarteko aholkularitza enpresako gerentea, landa guneari zein hiriguneari eusteko energiaren, uraren eta elikaduraren artean dagoen loturari erreparatuko die, eta etorkizun jasangarri bat izateko beharrak eta baliabideak integratzeko estrategiez, erreduez eta adibidez hitz egingo digu.

### Desarrollo rural sostenible aprovechando la energía del entorno:

El movimiento hacia el urbanismo durante el pasado medio siglo ha dejado los pueblos casi vacíos pero las ciudades llenas y sin recursos propios para sostenerlos. Para aquellos que quedan, y los que vuelvan a zonas rurales buscando calidad de vida, la sostenibilidad social, medioambiental y económica se ubica en la buena gestión de los recursos; y ahí la energía es clave. ¿Pero cómo conseguirlo? Mirando al nexo existente entre la energía, el agua y la alimentación para sostener el área rural igual que el área urbana, la consultora internacional de energías renovables Meghan Sapp nos hablará de estrategias, modelos y ejemplos de integrar necesidades y recursos para un futuro sostenible.

# ENERGIA, INGURUMENA ETA GIZARTEA ENERGÍA, MEDIO AMBIENTE Y SOCIEDAD

JARDUNALDIAK - JORNADAS  
Urriak 4 - 18 - 25 de Octubre,  
19:00  
Portalea (Eibar)

[www.ehu.eus](http://www.ehu.eus)

